

## ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA

<b>ikastetxea:</b> <i>centro:</i>	Uribe-Kosta BHI	<b>kodea:</b> <i>código:</i>	015143
<b>etapa:</b> <i>etapa:</i>	DBH	<b>zikloa/maila:</b> <i>ciclo/nivel:</i>	2.maila
<b>arloa/irakasgaia:</b> <i>área / materia:</i>	Euskara eta Literatura		
<b>osatutako arloak/irakasgaiak</b> <i>áreas/materias integradas</i>	Hizkuntzak, Geografia eta Historia eta IKT		
<b>diziplina barruko oinarrizko kompetentzia elkartuak</b> <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	-Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako kompetentzia -Teknologiarako kompetentzia -Kompetentzia sozial eta zibikoa		
<b>irakasleak:</b> <i>profesorado:</i>	Irati Arregi Pikabea / Urtza Uranga Kortina	<b>ikasturtea:</b> <i>curso:</i>	2018-19

### Zeharkako kompetentziak

1. Hitzez ,hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia
3. Elkarbizitzarako kompetentzia
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia
5. Izaten ikasteko kompetentzia

helburuak objetivos	ebaluazio-irizpideak criterios de evaluación
1. Eleberri baten irakurketan, hipotesien formulazioaren bidez modu aktiboan inplikatu, helburuaren baitako informazioa inferitu, eta testuaren esanahia norbere esperientziaren testuingurura ekarri.	-Aukera egokia egin du, eskatutako inferentzia eginez. * -Egindako aukeraren eta justifikazioaren artean lotura logikoa dago. * -Elkarrizketako ekarpen bakoitzaren igorlea inferitu du. -Liburuaren egilea eta pertsonaiak nor diren inferitu ditu. * -Kontakizuneko ekintzei buruzko hipotesiak egin ditu. * -Egindako hipotesiak testuan emandako informazioan oinarrituta daude.

2. Gai jakin bati lotutako enuntziatuetan zein proposatutako berridazketetan, esandakoarekiko igorleak adierazten duen jarrera islatzeko hizkuntza baliabideak zuzen eta egoki aplikatzen ditu.

-Iritzia ematen duten eta informazio soila ematen duten enuntziatuak bereizi ditu. \*

-Esaldiak berridazteko iritzia emateko esapideak erabili ditu. \*

-Iritzia emateko esapideak txertatzeak esaldian eskatzen dituen aldaketak zuzen egin ditu.

-Iritzia emateko esapide desberdinak erabili ditu\*

-Berridazterakoan hitzak zuzentasun ortografikoz kopiatu ditu. \*

-Ziurtasuna eta zalantza adierazten duten enuntziatuak bereizi ditu. \*

-Esaldiak berridazteko eskatutako egiturak erabili ditu. \*

-Zalantza adierazteko egiturak txertatzeak esaldian eskatzen dituen aldaketak zuzen egin ditu.

-Berridazketetan hitzen ortografia eta puntuazio-markak zuzen idatzi ditu.

-Esaldiak osatzeko, emaniko aditzak indikatiboko geroaldian zuzen jokatu ditu, komunztadura errespetatuz.

-Esaldietako hutsuneak betetzeko emaniko aditzetatik ahalerako geroaldiko aditz zuzenak hautatu ditu. \*

-Baldintza bakoitzari dagozkion bi ondorioak lotu dizkio.

-Baldintzadun 8 esaldi idatzi ditu hitzak zuzentasun ortografikoz kopiatuz eta baldintza eta ondorioa komaz bereiziz. \*

<p>3. Diskurtso partekatua eraikitzea helburu duen ahozko interakzio-egoeran berau bideratzen duten konbentzioak erabiltzen ditu, eta besteek esandakoa bere diskurtsoan integratzen du hizkuntza-baliabide egokiak erabiliz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Elkarrizketako hutsune bakoitzerako ekarpen egokia hautatu du diskurtso partekatua erabiltzeko. *</li> <li>-Elkarrizketa laburra berridatzi du elkarrekiko begirunea adierazten duten esapideak txertatuz*.</li> <li>-Elkarrizketaren berridazketan hitzak zuzentasun ortografikoz kopiaitu ditu eta puntuazio-markak zuzen idatzi ditu.</li> <li>-Besteen ekarpenekiko edo besteekiko errespetuzkoak ez diren esaldiak dituzten elkarrizketak identifikatu ditu. *</li> <li>-Besteen ekarpenekiko edo besteekiko errespetuzkoak ez diren esaldiak dituzten esaldietatik bi hautatu eta berridatzi ditu, errespetuzkoak ez diren hitzak edo hitz-multzoak errespetuzkoak direnekin ordezkaturaz. *</li> <li>-Berridazketetan hitzak zuzentasun ortografikoz kopiaitu ditu eta puntuazio-markak zuzen idatzi ditu.</li> <li>-Emaniko esaldi multzotik jatorrizko esaldiarekiko kausa-ondorio erlazio logikoa duena identifikatu du. *</li> <li>-Emaniko esaldi multzotik jatorrizko esaldiarekiko aurkaritzako erlazio logikoa duena identifikatu du. *</li> <li>-Esaldi bakoitzeko hutsunea betetzeko ideien arteko erlazio logikoa adierazten duen testu antolatzailea idatziz bete du.</li> </ul>
<p>4. Informazio soila adierazten duten enuntziatuak balorazio-enuntziatu bilakatzen ditu zentzu positiboa zein negatiboa adierazten duten adjektibo baloratiboak modu kontzientean erabiliz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Balorazioa adierazten duten eta adierazten ez duten esaldiak bereizi ditu. *</li> <li>-Balorazioa adierazten duten esaldietan adjektibo baloratiboak identifikatu ditu. *</li> <li>-Esaldietako hutsuneetan adjektibo baloratibo egokiak idatzi ditu. *</li> <li>-Adjektiboak esaldiek eskatutako kasuan, zuzen, deklinatu ditu.</li> <li>-Berridazketetan balorazio positiboa duten esaldietan, balorazio positiboa adierazten duten adjektiboen ordezkari balorazio negatiboa dutenak idatzi ditu, eta alderantziz. *</li> <li>-Berridatzitako esaldiak zentzuzkoak dira, koherentzia semantikoa dago ordezkaturako adjektiboen eta gainerako esaldiaren artean.</li> </ul>

<p>5. Nota kritikoen ereduak aztertuz haien atalak identifikatu, eta emandako informazioa zein berak sortutakoa egitura horren baitan antolatu.</p>	<p>-Emaniko testuetatik nota kritiko osatuena hautatu du.</p> <p>-Zatituta eta nahastuta emaniko nota kritikoaren zati bakoitza haren egituraren zein atali dagokion adierazi du. *</p> <p>-Zatituta eta nahastuta emaniko nota kritikoaren zatiak haren egituraren baitan ordenatu ditu.</p>
<p>6. Ikasitakoa bilduz, nota kritikoa berrikusteko elkarlanean sortutako kontrol-zerrendaren sorkuntzan modu aktiboan parte hartu eta adostutako urratsak norbere nota kritikoaren zein emanikoaren berrikusketan aplikatu.</p>	<p>-Balorazioa adierazten duten eta adierazten ez duten esaldiak bereizi ditu. *</p> <p>-Balorazioa adierazten duten esaldietan adjektibo baloratiboak identifikatu ditu. *</p> <p>-Esaldietako hutsuneetan adjektibo baloratibo egokiak idatzi ditu. *</p> <p>-Adjektiboak esaldiek eskatutako kasuan, zuzen, deklinatu ditu. *</p>
<p>7. Ikus-entzunezko testuak aztertuta, kode ugariren bidez transmititzen duten mezua interpretatu eta interpretazioaren emaitza adierazi emandako ereduaren arabera.</p>	<p>-Karteletan mezua adierazteko erabilitako kode ikonikoa eta hitzezko kodea erlazionatu ditu.</p> <p>-Kode ikonikoetan erabilitako planoak identifikatu ditu. *</p> <p>-Soinu-kodea darabilen testu baten, soinu-kodearen alderdi bakoitzaren (musika, hotsak, ahotsak) ezaugarriak identifikatu ditu. *</p> <p>-Ikus-entzunezko testua eta haren mezua erlazionatu ditu. *</p> <p>-Ikus-entzunezko testu bati dagokion interpretazioa osatu du, ikus-entzunezkoen eremuko lexikoa erabiliz. *</p> <p>-Zuzen idatzi du ikus-entzunezkoen eremuko lexikoa. *</p>
<p>8. Ikus-entzunezko mezua modu kritikoan aztertuz eta erreproduzitzen dituzten giza baloreak eta estereotipoak inferitu eta haien egokitasuna zein desegokitasuna baloratu emandako ereduaren arabera.</p>	<p>-Eskainitako artetik, bideoklipek iradokitzen dituzten baloreak hautatu ditu. *</p> <p>-Hautua justifikatzen du ikus-entzunezko testuei buruzko lexikoa erabiliz. *</p> <p>-Zuzen idatzi du ikus-entzunezkoen eremuko lexikoa. *</p> <p>-Kartela edo iragarkia eta haren balorazioa egiten duen testua erlazionatu ditu. *</p> <p>-Hautatu duen kartela desegokia da.</p> <p>-Hautatutako kartel desegokiaren balorazioa egiteko esaldi esanguratsuak hautatu ditu.*</p>

<p>9. Emandako euskarrietatik informazioa eskuratu eta eztabaidagai jakin baten inguruko iritzia adierazi eta justifikatu, argudio mota desberdinak baliatuz.</p>	<p>-Eztabaidagai bati buruz emaniko iritzia justifikatzeko argudioak identifikatu ditu. (identifikatu dituenak argudioak dira...)*          –bereizi ditu iritziak, bestelako informazioak...–, identifikatu dituen argudioak esandako iritziaren aldeko argudioak dira).*          -Iritziak eta horiek defendatzeko argudioak sortzeko informazioa ematen duten testuak erlazionatu ditu. *          -Adibideetan oinarritutako argudioa duten testu laburrak osatu ditu, emaniko euskarriak baliatuz (iritzia adierazten duten baieztapenak, argudioak edota osatzeko beharrezko informazioa duten testuak eta hizkuntza-baliabideak). *          -Autoritate-argudioa duten testu laburrak osatu ditu, emaniko euskarriak baliatuz, (iritzia adierazten duen baieztapena edota argudioak osatzeko beharrezko informazioa duten testuak eta hizkuntza-baliabideak).</p>
<p>10. Eztabaidagai baten gainean besteek duten iritzia errefusatzeko eta norberarena justifikatzeko argudiatu, besteen argudioak nork bere diskurtsoan txertatuz.</p>	<p>-Eztabaidagai baten aldeko eta kontrako argudioak sailkatzen ditu. *          -Eztabaidagai berari buruzko testuetatik, kontra-argudiaketa darabilten testuak identifikatzen ditu.          -Identifikatutako kontra-argudiaketa darabilten testuetan kontra-argudiaketaren atalak identifikatzen ditu (oinarrizko onarpena, indargabetu nahi den argudioa, aurkaritzako testu-antolatzailea eta defendatzen den iritziaren aldeko argudioa).          -Eztabaidagai berari buruz, kontra-argudioak dituzten testu laburrak osatzen ditu, landutako aldeko eta kontrako argudioak erabiliz. *</p>
<p>11. Norberak sortutako testuak eta besteak berrikusi eta hobetu, berdinen arteko berrikusketarako urratsak aplikatuz eta diskurtsoaren formari dagokionez landutako ezagutzak baliatuz.</p>	<p>-Pertsona-deitikoak identifikatu ditu. *          Pertsona-deiktikoek zeini egiten dioten erreferentzia identifikatu du. *          -Lehenengo pertsonako aditzak zuzen jokatu ditu. *          -Lehenengo pertsonako deiktikoak egoki erabili ditu, zegokionean pluralekoak, zegokionean singularrekoak.          -Testu-antolatzaile egokiak hautatu ditu, hutsuneak betetzeko eskaini zaizkion artetik. *          -Esaldiak berridatzi ditu, antzeko esanahia duten testu-antolatzaileak erabiliz. *          -Berridatzitako esaldietan, testu-antolatzaileei dagozkien puntuazio-markak zuzen idatzi ditu. *          -Testuaren hautazko irakurketa egin du, kontrol-zerrendako alderdietan oinarrituz.          -Kontrol-zerrendan oinarrituta, ondo egindako alderdiak zein hobetzekoak identifikatu ditu. *</p>

	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Hobetzeko proposamenak sortu ditu, eta argi, zehaztasunez eta errespetuz adierazi ditu. *</li> <li>-Berdinen arteko berrikusketatik, egin zaizkion proposamenak balioetsi ditu eta erabakiak hartu ditu.*</li> <li>-Berrikusketan lagundu dionari eskerrak eman dizkio.*</li> </ul>
<p>12. Elkarreaginean egin beharreko zereginetan modu aktibo eta efikazean parte hartu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Taldean iritziak errespetuz eman ditu. *</li> <li>-Taldean iritziak errespetuz entzun ditu. *</li> <li>-Taldekideek iritziak errespetuz eman ahal izan dezaten bitartekoak jarri eta bere ekarpena egin du.</li> <li>-Taldekideen ekarpenak kontuan hartu ditu. *</li> <li>-Taldekideen ekarpenak kontuan har daitezen bitartekoak jarri eta bere ekarpena egin du.</li> <li>-Taldekideek bere ekarpenak kontuan har ditzaten bideratu du.</li> <li>-Denbora ondo kudeatu du. *</li> <li>-Denbora ondo kudeatzeko bitartekoak jarri eta bere ekarpena egin du.</li> </ul>
<p>13. Erreportajeen ereduak aztertuz haien komunikazio-asmoa inferitu eta egituraren osagaiak bereizi eta ezagutza hori norberaren testuaren planifikazioan erabili.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Eskainitako 3 testuetatik soilik informazioa emateko helburua duena identifikatu du. *</li> <li>-Eskainitako 3 testuetatik informazioa emateaz gain irakurleen ekintzetan eragiteko helburua dutenak identifikatu ditu. *</li> <li>-Eskainitako 3 testuetatik erreportajea identifikatu du.*</li> <li>-Eskainitako erreportajearen erreportajearen egiturako elementuak identifikatu ditu. *</li> <li>-Eskainitako erreportajearen agertzen ez diren erreportajearen egiturako elementuak ezagutzen ditu.</li> <li>-Erreportajearen komunikazio-asmoa, izenburua eta sarrera emanik, haien baitako azpi-izenburu egokiak hautatu ditu. *</li> <li>-Erreportajearen azpi-ataletako informazioa emanik, azpi-izenburu egokiak idatzi ditu (azpi-ataletan emandako informazioa biltzen dute eta laburrak dira)</li> </ul>
<p>14. Informazioa eskuratzea helburu duen aurrez planifikatutako elkarrizketan, aurrez aurreko egoeraren ezaugarrien arabera galdera egokiak egin eta interakzioarako estrategiak aplikatu.</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>-Elkarrizketatua, elkarrizketaren helburua, gaia eta elkarrizketarako galdera-gidoia emanik galdera egokiak hautatu ditu: helburuarekiko egokiak, ez iraingarriak, ez errepikakorrak. *</li> <li>-Galdera-gidoia eta entzuteko elkarrizketa emanik, elkarrizketatuak gidoitik erantzundako galderak identifikatu ditu.</li> <li>-Galdera-gidoian agertzen ez den eta elkarrizketaren helburu eta gaitik urruntzen den galdera identifikatu du entzundako elkarrizketan.</li> <li>-Elkarrizketari hasiera emateko testu egokia hautatu du. *</li> <li>-Elkarrizketari amaiera emateko testu egokia hautatu du. *</li> </ul>

	<p>-Transkribatutako elkarrizketan elkarrizketatuarekin diskurtso partekatua eraikitzeko, hizkuntza-baliabide egokiekin bete ditu elkarrizketatzailearen jarduneko hutsuneak.*</p>
<p>15. Testu bateko ideien arteko erlazio semantikoa inferitu, eta erlazio horiek adierazteko hizkuntza-baliabideak zein progresio tematikoa bideratzen dutenak norberaren ekoizpenean erabili.</p>	<p>-Informazioak azpi-izenburuen arabera antolatzen ditu (deskribapen testu-sekuentzia eta faseakoa edo denboraren baitakoa) *</p> <p>-Azpi-izenburuen arabera eskainitako informazioetatik egokiak ez direnak identifikatzen ditu (aipatutako fenomeno edo ondorioarekin kausalitate erlazorik ez dutenak, esplikazio-sekuentzia)</p> <p>-Informazioak edo ideiak, gehiegizko errepikapenik gabe, progresio tematikoa bermatzeko hizkuntza-baliabideak egoki erabiltzen ditu. *</p> <p>-Informazioak edo ideiak lotzeko, horien arteko erlazio semantikoaren arabera, testu-antolatzaile egokiak erabiltzen ditu. *</p>
<p>16. Besteen hitzak norberaren diskurtsoan txertatzeko landutako hizkuntza-baliabideak aplikatu.</p>	<p>-Estilo zuzena eta zehar-estiloa bereizten ditu. Lkasitako puntuazio-ikurrak zuzen erabiltzen ditu. *</p> <p>-Zehar-estiloa erabiltzerakoan bakarrik egiten ditu pertsona-izenordainetan egin beharreko aldaketak (1.-tik3.era)</p> <p>-Zehar-estiloa erabiltzerakoan, esatezko aditzekin perpaus konpletiboak osatzeko beharrezko aldaketak egiten ditu.*</p> <p>-Zehar-estiloa erabiltzerakoan, esatezko aditzen antzerako esanahia duten egiturekin ez ditu perpaus konpletiboak osatzen.</p> <p>-Elkarrizketatuaren adierazpenak zehar-estiloan edo estilo zuzenean ematerakoan egindako akatsak identifikatzen ditu.</p>
<p>17. Emandako enuntziatuetan izen-sintagmak eta haien osagaiak identifikatu, eta, osagaiak deklinatuz, esaldi zuzenak idatzi.</p>	<p>-Eskatutako baldintzak betetzen dituzten izen-sintagmak identifikatzen ditu. (Kategoria gramatikal hauetakoren atez edo denez osatutakoak: izena, determinatzaile mugatzailea artikulua eta adjektiboa. Eta deklinabide kasu zehatzean deklinatutakoak).</p> <p>-Eskatutako baldintzak betetzen dituzten izen-sintagmak idazten ditu. (Kategoria gramatikal hauetakoren batez edo denez osatutakoak: izena, determinatzaile mugatzailea artikulua eta adjektiboa. Eta deklinabide kasu zehatzean deklinatutakoak).*</p> <p>-Izen sintagmak zuzen deklinatzen ditu. *</p> <p>-Zuzen jokatzeko aditzak, haren Komuntaduran eragiten duten izen-sintagmen arabera. *</p>

<p>18. Hizkuntzen bizitzaren eta garapenaren eragileei buruzko informazioa identifikatu eta adierazi, inguruko errealitate soziolinguistikoaren berri ematen duten testuak aztertuz.</p>	<p>-Hizkuntzen bizitza eta garapenaren eragileak eta kontzeptu soziolinguistikoak eta haiei buruzko informazioa ematen duten testuak erlazionatzen ditu. *</p>
<p>19. Gelakideen aurrean, gai baten ahozko azalpen prestatuak egin</p>	<p>-Ahozko azalpena egiten du.*          -Azalpena egitura bati jarraitzen dio.*          -Ahozkoetako ezaugarriak betetzen ditu: intonazioa, bolumena, keinuak...*          -Hizkuntza zuzentasunez erabiltzen du.</p>
<p>20. Grafikoen erabilera landu.</p>	<p>-Grafikoetako datuak ondo interpretatzen daki.*          -Grafiko mota ezberdinak erabiltzen ditu ( barrazkoa, zirkulua).</p>

**ARAZO EGOERA** [Arazo egoera bakoitzaren azken ataza, arazoa eta testuinguruaren daturik nabarmenenak agertuko dira.].

- [1. arazo egoera](#)

TESTUINGURUA, ARAZOA ETA AZKEN ATAZA

Irakurleok baditugu hainbat plaza irakurritako liburuei buruzko gure iritziak zabaltzeko; esaterako, ingurukoek liburu bat gomendatzeko eskatzen digutenean, gure iritzia adieraz diezaikegu; hain hurbilekoak ez diren irakurleekin ere parteka dezakegu, liburutegiko irakurle-taldean; idazlea bisitan etortzen bazaigu edo liburu-azokaren batean ikusten badugu, hari ere jakinaraz diezaikegu zer eragin izan duen haren lanak gudan; hor ditugu aldizkari eta egunkariak ere, gure kritikak bidaltzeko; liburu-dendariari eman diezaikegu liburu bati buruz dugun iritzia, hark beste bezero batzuei gomendatzeko edo ez gomendatzeko; liburu-denda digital gehienetan bada liburuen gaineko iruzkinak uzteko aukera; hainbat literatura-elkartek ere irakurleen kritikak jaso nahi izaten dituzte beren webguneetan; liburutegi askotan bisitari-liburuak egoten dira, kideek liburuei buruzko iritziak utz ditzaten; sarean liburutegi asko daude, baita argitaletxeak ere; idazle ugari ere izaten dituzte webguneak edo blogak, eta haietara jo dezakegu gure kritikak utzi eta haien bakardadea txikiagotzeko.

Irakurleok hainbat plaza ditugu literaturan eragile izateko, eta aprobetxatu egingo ditugu: irakurritako liburuen iruzkinak idatzi eta utziko ditugu aukera ematen diguten lekuetan, eta, ikusi dugunez, ez dira gutxi!

- [2. arazo egoera](#)

TESTUINGURUA, ARAZOA ETA AZKEN ATAZA



Gure ikasleak 2.mailan daude, hau da, 13 edota 14 urte inguru dauzkate; gure ustez, heldutasun nahikoa adierazten dute rol edota estereotipo matxistak identifikatzeko eta horien aurkako aukerak proposatzeko. Jasone Osororen “Ezekiel” liburua lantzen ari gara, eta irakurketan zehar etengabe irakurtzen ditugu holako kontuak: “Leon, ostia! zertan ari zara; neskabila bat ematen duzu moto gainean!”; “Bai, ni ikaragarri berotzen nau neska bat takoi gainean ikusteak!”, “nesken inguruko apustua egitea...”. Esandako rol eta estereotipo matxistak, diskriminazioak, nesken inguruko gutxiespenak, ...mikromatxismo oro gizartean etengabe bizi ditugun egoerak dira eta azaleratzea eta identifikatzea aldatzeko lehenengo urratsa dela iruditzen zaigu. Adin honetako neska mutilen artean ere, halako jarrerak bizi ditugu eskolan; eta ondorioz, askotan euren arteko harremanak ere nahiko toxikoak izaten dira eta emakumearen aurkako biolentziaren lehenengo zantzuak ager daitezke (mutilak neskarekiko ezartzen duen kontrola, norekin irten norekin ez, telefono deiak eta mezuen kontrola, sexu-harremanetan mutilaren desirak asetzeko beharra, neskarekiko gutxiespenak, ahozko zein idatzizko sexu-jazarpenak...).

Jasone Osororen “Ezekiel” liburuan agertzen diren genero estereotipo eta mikromatxismoez solasaldi literarioa egingo dute. Emakumeen aurkako indarkeriaz eta zehatzago, harreman afektibo-sexualetan ematen diren maitasun erromantiko eta harreman toxikoez solasean arituko dira; ikasleen arteko interakzioa ,kasu honetan berdinen artekoa, lortu nahi dugu. Irakurri eta identifikatzen dutena partekatzen aukera ezin hobea eskaintzen digu solasaldi literarioak, horrela bakarka irakurritakoa baino sakonago ulertzen dira kontuak. Iritziak trukatu, interpretazio-prozesua ere hasten da; besteak beste, irakurri edo identifikatutakoaren gainean bakoitzak duen ezagutza edo bizipenak besteekin partekatzen delako. Tertulia ez da elkarrizketa bat soilik, hortaz, alde aurretik prestatu egin beharko dute, ikasle guztien parte hartzea bermatzeko ere, ahozko-interakzio egoerak bideratuko dituen konbentzioak egoki erabiltzen ere ikasiko dute.

**EDUKIEN SEKUENTZIA** [denbora-tarteka, unitate didaktikoka, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta,...]

<b>1.ebaluazioa: Literataria</b>	<b>2. ebaluazioa: Gazte gara gazte</b>	<b>3. ebaluazioa: Jalgi hadi plazara</b>
Narrazio-elementuak: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Pertsonaiak</li> <li>- Arazoa eta ekintzak</li> </ul> Kausa-ondorio erlazioa Testu-antolatzaileak	Ikus-entzunezko testuen kodeak: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Hitzezko kodea</li> <li>▪ Kode ikonikoa</li> <li>▪ Soinu-kodea</li> </ul> Giza balioak eta estereotipoak  Argudio-sekuentzia: iritzia eta arrazoiak Kausa-ondorioetan oinarritutako argudioak	Erreportajea <ul style="list-style-type: none"> <li>● Komunikazio-asmoa</li> <li>● Egitura               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Izenburua</li> <li>- Sarrera</li> <li>- Gorputza                   <ul style="list-style-type: none"> <li>· Azpigituluak</li> <li>· Informazio osagarria</li> </ul> </li> <li>- Tartekiak</li> </ul> </li> </ul>
Modalizazioa: <ul style="list-style-type: none"> <li>- Iritzia adierazteko esapideak eta aditzak</li> <li>- Zalantza, ziurtasunik eza, probabilitatea adierazteko               <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Esapideak</li> <li>○ Aditz modua:</li> </ul> </li> </ul>	Argudio-diskurtsoa  Egitura <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Iritzia</li> <li>▪ Argudio motak               <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Adibideetan oinarritutakoak</li> <li>○ Autoritatezkoak</li> </ul> </li> </ul>	Elkarrizketa <ul style="list-style-type: none"> <li>● Komunikazio-asmoa</li> <li>● Elkarrizketatuaren ezaugarriak</li> <li>● Elkarrizketarako gidoia               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Galderen egokitasuna</li> </ul> </li> <li>● Interakziorako estrategiak               <ul style="list-style-type: none"> <li>- Agurtzea</li> <li>- Aurkeztea</li> </ul> </li> </ul>

<ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Indikatiboko geroaldia</li> <li>▪ Ahalerako geroaldia</li> </ul> <p>Baldintza hipotetikoak</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>○ Tradizioan oinarritutakoak: esaera zaharrak</li> <li>○ Kausa-ondorio erlazioan oinarritutakoak</li> </ul> <p>Kohesioa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Testu-antolatzaileak <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Adibideak ematekoak</li> <li>○ Kausa-ondorio erlazioa adieraztekoak</li> </ul> </li> <li>▪ Hizkuntza-egiturak <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Autoritate-argudioetarako esatezko aditez eratutakoak</li> </ul> </li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Elkarrizketari hasiera ematea</li> <li>- Gaiari lotzea: adi entzutea, elkarrizketatuak esandakoarekiko erreakzioa adieraztea, hitz-txanda errespetatzea, azalpenak eman edo eskatzea (galdera ondo ulertu duela ziurtatzeko, erantzunaren alderdiren bat argitzeko, indartzeko edota sakontzeko), elkarrizketatuak esandakoa laburtzea edo handik zerbait ondorioztatzea</li> <li>Elkarrizketa amaitzea</li> </ul>
<p>Tertulia edo solasa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Egitura: elkarrizketa <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Gidoia: pertsonaiak, kontakizuna eta kontamoldea</li> </ul> </li> <li>- Koherentzia-markak <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Besteek esandakoa bere diskurtsoan txertatzeko testu-antolatzaileak: <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ideiak gehitzeak</li> <li>▪ Aurkaritza adieraztekoak</li> <li>▪ Oinarri kausala dutenak <ul style="list-style-type: none"> <li>● Kausa-ondoriozkoak</li> <li>● Baldintza zkoak</li> </ul> </li> </ul> </li> </ul> </li> <li>- Interakzio-markak: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Elementu proxemikoak: lekua, distantzia...</li> <li>○ Elementu kinesikoak: komunikatiboki esanguratsuak diren mugimenduak (keinuak, begirada, eskuen mugimendua, aurpegiaren espresioa...)</li> </ul> </li> <li>- Ahozko interakzioa bideratzen duten konbentzioak: <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Formalak: hitz-txandak, gaia mantentzea...</li> </ul> </li> </ul> <p>Sozialak: kideekiko eta haien iritziarekiko errespetua, agurtzea, eskerrak ematea...</p>	<p>Argudio-diskurtsoa: kontra-argudiatzea</p> <p>Egitura</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Iritzia</li> <li>▪ Kontrako argudioak</li> </ul> <p>Kohesioa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Testu-antolatzaileak <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Aurkaritza adieraztekoak</li> </ul> </li> </ul> <p>Modalizazioa: kortesia-formulak</p>	<p>Testu-sekuentziak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Deskribapen-sekuentzia <ul style="list-style-type: none"> <li>- Prozesu baten deskribapena</li> </ul> </li> <li>● Esplikazio-sekuentzia: fenomeno/gertakizuna eta haren zergatiak</li> </ul> <p>Kohesio-elementuak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Testu-antolatzaileak <ul style="list-style-type: none"> <li>- Oinarri kausala dutenak: kausazkoak ondoriozkoak</li> <li>- Ordena adieraztekoak</li> <li>- Denbora adieraztekoak</li> <li>- Ideiak gehitzeak</li> </ul> </li> <li>● Progresio tematikoa <ul style="list-style-type: none"> <li>- Elipsia</li> <li>- Anafora <ul style="list-style-type: none"> <li>· Sinonimoak</li> <li>· Hiperonimoak</li> <li>· Erakusleak</li> </ul> </li> </ul> </li> </ul> <p>Erakusleak + sinonimoa/hiperonimoa</p>

<p>Hartzailearengan eragiteko hizkuntza-baliabideak</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Adjektibo baloratiboak: <ul style="list-style-type: none"> <li>o Balorazio positiboa</li> <li>o Balorazio negatiboa</li> </ul> </li> </ul>	<p>Argudio-diskurtsoa</p> <p>Igorle eta hartzaileei erreferentzia egiteko hizkuntza-baliabideak (pertsona-deiktikoak)</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Pertsona-izenordainak</li> <li>▪ Aditz jokatua <ul style="list-style-type: none"> <li>o Aditzaren komunztadura</li> </ul> </li> </ul> <p>Kohesioa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Testu-antolatzaileak <ul style="list-style-type: none"> <li>o Paragrafoak erlazionatzekoak: ordena adieraztekoak, ideiak gehitzekoak, ondorioak adieraztekoak.</li> <li>o Paragrafo barneko ideiak erlazionatzekoak: kausa-ondoriozkoak, aurkaritzakoak, adibideak ematekoak.</li> </ul> </li> <li>▪ Puntuazio-markak</li> <li>Koma testu-antolatzaileetan</li> </ul>	<p>Esatezko aditzak eta antzeko esanahia duten hizkuntza-egiturak</p> <p>Estilo zuzena</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Puntuazio-markak edo ikurrak: aipu-markak, edo komatxoak eta koma</li> </ul> <p>Zehar estiloa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Perpaus konpletiboak</li> <li>● Pertsona-izenordainak</li> <li>Denbora-adberbioak</li> </ul>
<p>Ohar kritikoa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Helburua</li> <li>- Egitura: <ul style="list-style-type: none"> <li>o datu bibliografikoak</li> <li>o edukia: pertsonaiak, arazoa eta ekintzaren bat</li> <li>o balorazioa: pertsonaiak, kontakizuna, kontamoldea</li> <li>o nota kritikoaren igorlearen datuak eta data</li> </ul> </li> <li>- Hizkuntza-baliabideak <ul style="list-style-type: none"> <li>o Balorazioa adierazteko adjektiboak</li> <li>o Kohesio-elementuak: testu-antolatzaileak <ul style="list-style-type: none"> <li>▪ Ideiak gehitzekoak</li> <li>▪ Aurkaritza adieraztekoak</li> </ul> </li> </ul> </li> </ul> <p>Kausa-ondoriozkoak</p>		<p>Esaldia</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>● Aditza: komunztadura</li> <li>● Izen-sintagma <ul style="list-style-type: none"> <li>- Izena</li> <li>- Adjektiboak</li> <li>- Determinatzaile mugatzaile artikulua</li> <li>- Deklinabidea: NORK, NORI, NOR eta lekuzko kasuak</li> </ul> </li> </ul>
		<p>Ama-hizkuntza</p> <p>Erabilera-eremua</p> <p>Hizkuntza-komunitatea</p> <p>Hizkuntza-ordezkapena</p> <p>Aurreiritzi linguistikoak</p> <p>Hizkuntza-eskubideak</p> <p>Hizkuntza ofiziala</p> <p>Hizkuntza handia edo maioritaria</p> <p>Hizkuntza txikia edo minoritaria</p> <p>Hizkuntza gutxitua edo minorizatua</p>

		Hizkuntzen normalizazioa Euskalgintzako erakundeak: Euskaltzaindia, ikastolen mugimendua, euskarazko hedabideak, euskara-elkarteak... Euskalgintzako egitasmoak Euskararen normalizaziorako legea
Ezekiel liburuaren irakurketa	8 ipuin gotiko	Ikaslearen interesen araberako irakurketa eta iruzkin kritikoa

**METODOLOGIA** [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

Edukien antolaketa: ikus aurreko atala

Ataza motak: Hasierako fasean, kokatze jarduerak, arakatzeko-jarduerak eta planifikazio-jarduerak; garapen fasean, ulertze jarduerak, miatze-jarduerak, aplikazio-jarduerak, egituratze-jarduerak eta integrazio-jarduerak sinpleak; eta amaierako fasean, aplikazio-jarduerak konplexuak.

Baliabide didaktikoak: Ikasleek EKI proiektua erabiliko dute: ebaluazio bakoitzeko liburu bana eta ikasgelako ordenagailuak. Lehenengo proiektua aurrera eramateko Jasone Osororen Ezekiel eleberria erabiliko dute.

Ikasleen taldekatzea: jarduerak garatzeko modurik egokienean lan egingo dute ikasleek, bakarka, bikoteka, talde txikian edo talde handian. Espazioaren antolaketa: beharren araberako antolaketa; binaka edo taldeka. Aniztasunaren trataera: ik. Kalifikazio irizpideak. Ikasgelan bi irakasle aritzen gara ikasle guztiei behar duten arreta emateko.

Testu liburua: Euskara eta Literatura DBH 2. EKI proiektua. IkasElkar.

Ikastetxeko liburutegiko irakurketa liburuak  
Google calendar classroom, drive eta sites erabiliko ditugu.

Metodologia inklusiboa eta anitza erabiliko dugu. Gaiak malgutasunez eta era anitzean aurkeztuko ditugu. Hizkuntzaren oinarritzko arloak -irakurmena, mintzamena, entzumena eta idazmena- landuko ditugu. Ikasleak autonomia lor dezan, azalpenekin batera ahozko zein idatzizko ariketak egingo ditugu. Edukiak indartzeko eta akatsak zuzentzeko, noizbait etxeko lanak aginduko ditugu. Ikasleen parte-hartze aktiboak ezinbestekoa izan behar du. Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektuan adierazten den bezala, irakurmena eta entzumena lantzeko beren-beregiko atazak landuko ditugu. Ahozko eta idatzizko testuen bitartez, metodologia eraginkorra erabiliko dugu. Eguneroko lana asko baloratuko dugu, baita banakako zein taldeko lana ere. Ikasleen motibazioa bultzatuko dugu, helburuak jakinaraziz, zein negoziazio jarduerak proposatuz, besteak beste. Ikaskuntza autonomia izaten ahaleginduko gara, eta ikasitakoaren funtzionaltasuna eskola esparrutik kanpo bultzatuko dugu. IKTak gure metodologian garrantzi handikoak dira, beraz, blogak, web orriak...ea erabiliko ditugu. Honetaz gain, zenbait proiektu, (Normalkuntza, Agenda 21, Genero berdintasuna...) gure egunerokoan integratuko ditugu.

Gure Hobekuntza Planean eta Hizkuntza Proiektua n adierazten den bezala, irakurmena eta entzumena lantzeko beren-beregiko atazak landuko ditugu. Ataza horiek prestatzeko formakuntza lan-saio batzuk antolatuko ditugu, eta bertan landutakoa ikasturtean zehar ikasgeletan gauzatuko dugu. Idazmena zuzentzeko irizpide bateratuak, mintegi guztiok azterketetan erabiliko duguna:

**OHARRA:** Bestalde, ikastetxeko proiektuekin bat eginez, mintegiko irakasleok eskola orduetan eta egokia ikusten duen uneetan, honako ekimenen alde joko dugula adierazi nahi dugu:

\_ **Normalizazioa:** Euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta jarduerak landuko ditugu, euskararen erabilera sustatzen, zaintzen, indartzen eta erabiltzen

\_ **Irakurketa Plana:** Arloko testu espezifikoak ulertzeko jarduerak landuko dira, ikaskuntza-jardunaren oinarrizko edukia izan dadin

\_ **HTB:** Gure hobekuntza planean eta Hizkuntza proiektuan adierazten den bezala, irakurmena lantzeko berenberegiko atazak egingo dira. Halaber, idatzizko testuak zuzentzeko mintegi guztien artean adostutako **txantiloia** erabiliko da.

\_ **Hezkidetz (Aniztasuana):** Sexuen arteko eskubide berdintasuna, edozein eratako bereizkeriaren aurreko gaitzespena eta kultura guztien begirunea modu eraginkorren gauzatu. Guztien partaidetza positiboa sustatu.

\_ **Bizikasi:** "Arloko ekintzetan, hezkuntza komunitateko kide guztien arteko harreman positiboak eta elkar bizitza osasungarria eraikitzen lagunduko da."

\_ **Agenda 21:** Kontsumoaren arduratsua bultzatu eta ikastetxe ingurunearen alde lan egiteko konpromesua baloratuko da.

\_ **IKT:** Gure ikasleek bere garapenerako behar dituzten gaitasun digitalak eskuratzeko informazio bilatu, lortu, prozesatu eta komunikatu beharko dute (informazio hori jakintza bilakatzen).

Hauxe da hizkuntzetako mintegien artean idazlanak eta era guztietako testuak zuzentzeko adostu dugun irizpide sorta:

ZUZENTZEKO IRIZPIDEAK	%100	%0
<b>ITXURA ETA ANTOLAKUNTZA</b>	-Paragrafoak ondo antolatuak. -Garbi eta txukun dago -Izenburu egokia -Orri bazterrak daude	-Paragraforik ez dago -Narratsa. -Izenbururik ez dago -Orri bazterrik ez dago.
<b>KOHERENTZIA</b>	-Informazio egokia da helbururako. -Testu mota errespetatzen da -Kontraesanik eta errepikapenik ez dago	-Informazioa ez da egokia helbururako -Testu ezaugarriak ez ditu errespetatu -Kontraesanak eta errepikapenak daude

<b>KOHESIOA</b>	-Paragrafo 1 ideia 1 -Ideiak ondo lotuta daude (lokarriak/ antolatzaileak) -Puntuazioa zuzena da	-Paragrafo nahasiak -Ideia solteak eta lokarrik ez -Puntuazioa desegokia da
<b>ZUZENTASUNA</b>	-Ortografia, lexikoa eta gramatika.	-Akats nabarmenak: ortografia, lexikoa, gramatika
<b>HELBURU KOMUNIKATIBOA</b>	-Idazlanak mezua argi eta ondo transmititzen du. Testua ondo landua da.	-Idazlanak ez du mezua ondo transmititzen. Testua landu gabe dago.
<b>BETEBEHARRAK</b> <b>Lana orri zuri batean entregatuko dute.</b> <b>Lana epe barruan entregatuko dute.</b>		

EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]	KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]
<ul style="list-style-type: none"> <li>● Azterketak</li> <li>● Ikaslearen koaderno edo apunteak</li> <li>● Irakaslearen koadernoak</li> <li>● Gela barneko behaketa</li> <li>● Etxerako lanak</li> <li>● Ikaslearen ekoizpenak, classroomeko lanak.</li> </ul>	<p><b>PROIEKTUA..... %40</b> -Zuzentasuna: ( atalak mailaren arabera zehaztuko dira) deklinabidea, aditzak eta denboraldia, hiztegia, ortografia - Koherentzia: atalak errespetatzea - Kohesioa: antolatzaileak - Egokitasuna: eskatzen zaion lanaren arabera - Proiektuaren planifikazioa - Proiektuaren planifikazioaren betetze maila</p> <p><b>IRAKUR LIBURUA..... %10</b> ("Ezekiel", "Zortzi ipuin gotiko", ikasleek aukeratutako beste liburu bat...)</p> <p><b>JARRERA..... %10</b> (lana eta ikasgaiarekiko jarrera, parte hartzea, lankidetzatza, koadernoko lana, etxerako lanak, materiala ekartzea, garaiz heltzea, klaseko materiala zaintzea, lanak garaiz ematea, gainerako pertsonak begirunez tratatzea...)</p>

	<p><b>EUSKARAREN ERABILERA..... %10 (%5</b> ikaskideekin euskara erabiltzeagatik, %5 irakasleari euskaraz zuzentzeagatik)</p> <p><b>BESTELAKOAK..... %30</b> unitatean zehar landutako eduki, gaitasunen jabekuntza (Gramatika, Entzumena, irakurmena, idazmena eta ahozkoa)</p> <p>Oharra: proiektua baloratzeko garaian, aniztasunaren trataerari behar bezala erantzuteko, ikasle batzuei gehiago baloratuko zaie proiektuaren bukaerako emaitza; beste batzuei, aldiz, proiektua aurrera eramateko pausuz pausuko eguneroko lana kontuan hartuko zaie gehien. <b>(HBSP)</b> Aniztasun trataerari erantzuteko, beharrezkoa bada ikasitako gramatika kontzeptuetan ikaslearen mailaren arabera egokitzapenak egingo ditugu.<b>(HBSP)</b></p> <p><b>OHARRA: Proiektua</b> eta <b>Bestelakoak</b> arloetan ehunekoen aldaketak egon daitezke, ebaluazio eta edukien arabera. Aldaketak egotekotan ikasleei jakinaraziko diegu azken nota eman baino lehen.</p>
--	--

**EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisisa, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekurzio-sistema...]**

**BERRESKURAPENAK:** Etengabeko ebaluazio sistema erabiltzen dugunez gero, ikasleek ebaluazio bat aprobaten dutenean, aurreko guztia gaindituzat joko dugu. Bestela, **urtarrilaren 15ean** aparteko azterketa egiteko aukera izango dute, gainditu gabe duten ikasgai hau gainditzeko. Horretarako, agindutako errefortzurako ariketak egin beharko ditu. Aurreko ikasturtekoa gainditzeko % 40ko balioa izango du lanak eta %60koa urtarrilean egingo den azterketak.

Ikasleren batek aurreko ikasturteetako Euskara ikasgaia gainditu gabe izango balu, ikasturtean zehar ebaluazio bat ONDO gaindituz ikasgaia gaindituko luke.

Ohiko ebaluazioan kurtso osoan landutako edukiak baloratuko dira.

Ezohiko deialdian ikasturte osoan landutako edukien inguruko azterketa egingo da.

**OHARRAK**

\* Ezagutza minimoak \* bidez zehazturik daude.

Lanak eta proiektuak epez kanpo emateak emaitzan eragina izango du.

